

2015eko AZAROAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **16 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko azaroaren 26an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDIA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2015eko urriaren 29koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2015eko urriaren 26tik azaroaren 20ra

Segidan, Alkatetzak 2015eko urriaren 26tik azaroaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

Alkate jaunak hartu du hitza eta, laburbilduz, dekretu hauek aipatu ditu:

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko urriaren 26tik azaroaren 16ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 26tik azaroaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- ZARAUZKO ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2008ko martxoaren 26an UDALAK ZARAUZKO ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA onartu zuen.

Ordenantza horrek bi aukera ematen ditu sustapen publikoko etxebizitza tasatuak esleitzeko: alokairua eta azalera eskubidea. Alkatetzak proposatu zuen etxebizitzak jabetza osoan esleitzeko aukera ordenantzan sartzea.

Udalaren agindua jarraituz Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak ordenantza aldatzeko testua prestatu zuen.

Geroago, Hirigintzako informazio-batzorde batean planteatu zuten Zarauzko biztanle izan beharrari buruzko baldintzen ordenantza ere aldatzea.

Azken batez, honako artikulua aldatzea proposatu dute: 7.a (udal etxebizitza tasatuak sustatzeko eta lagatzeko modua); 9.a (udalerriko biztanle izan beharra); eta 15.a (udal etxebizitza tasatua esleitzeko prozedura).

Ordenantza aldatzeko proposamena Hirigintzako informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Ordenantza aldatzeko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN aldaketari.

Aldaketak ordenantzaren 7. 9. eta 15. artikuluetan sartu dira, batetik, sustapen publikoko etxebizitzak jabetza osoan esleitzeko aukera sartzeko, eta bestetik, udalerriko biztanle izan beharraren baldintzak malgutzeko.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurrean jartzeko tramitea jakinarazteko, iragarki bat argitaratuko da udaletxeko iragarki-taulan, Udalaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza berria behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

IDAZKERA BERRIA

7. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO ETA LAGATZEKO MODUA

1.- Zarauzko UETak, edozein motatakoak izanik ere, ondokoek sustatu ahal izango dituzte: Udalak; Zarautz Lur SA udal sozietateak; enpresa publiko edo pribatuek (Udalak **jabetza osoa edo** azalera-eskubidea laga badie horrelakoak eraikitzeke); beste herri administrazio batzuek edo beren erakunde instrumentalek; eta kooperatiba edo enpresa pribatuek, beren titulartasuneko lurretan.

2.- Udalak, Zarautz Lur SA udal sozietateak edo enpresa publiko edo pribatuek sustatutako UETen lagapena (balain eta horien eskubideak Udalak **jabetza osoa edo** azalera-eskubidea lagatzearen ondorio badira) honela egingo da: errentamenduan, azalera-jabetzan edo **jabetza osoan**. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo beste administrazio batzuek edo beren erakunde instrumentalek edo kooperatiba edo enpresa pribatuek beren titulartasuneko lurretan sustatutako UETak, berriz, jabetza osoan laga ahal izango dira, besterik ezartzen ez bada lurzorua hirigintza-kalifikazioaren aginduz edo Udalarekin izenpetutako hitzarmen bidez.

3.- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritza edo bere sozietate atxikiak UETetarako kalifikatutako lur-zatien jabe direnean, **BOEak edo BOETak eraikitzeke baliatu ahal izango dira lur horiek**.

9. artikulua. UDALERRIKO BIZTANLE IZAN BEHARRA

1.- Deialdi bakoitzaren oinarrietan UET baten sustapenaren onuradun izateko beharrezkoak diren biztanle eta errozte baldintzak finkatuko dira.

2.- Deialdi guztietan errespetatuko da baldintza hau: gutxienez bizikidetz-unitateko kideetako bat dagokion deialdia arautzen duten oinarriak onetsi aurreko 5 urteetan gutxienez etengabe erroldatuta egotea; edo gutxienez 10 urtez, **jarraian edo etenaldiekin, nahiz eta oinarriak onetsitako datan erroldatu gabe egon**.

15. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUA ESLEITZEKO PROZEDURA

1.- Udalaren sustapenetan edo sustapen pribatuetan UETak esleitzeko (balain eta horien eskubideak Udalak **jabetza osoa edo** azalera-eskubidea lagatzearen ondorio badira), zozketa egingo da, hurrengo artikulua aipatzen duen Udal Erregistroan sartuta dauden eskatzaileen artean, betiere Ordenantza honetan eta Udalak edo, egoki denean, Zarautz Lur SA udal sozietateak edo beste erakunde publiko instrumental batek deialdi

bakoitzera ezarri eta onetsiko dituen oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta nolahi ere, publizitatearen, gardentasunaren, lehia librearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzen badira.

2.- Zozketa hori, edonola ere, deialdi publiko baten bitartez jakinarazi beharko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratuta. Honako hauen aurrean egingo da zozketa: Udaltzako idazkaria, Zarautz Lur erakunde publikoko gerentea edo eskuordetze bidez fede-emaile publikoaren izaera duena. Prozedura hori bera jarraitu ahal izango da Udalarekin hitzarmen bidez horrela ezarri den sustapenetan.

3.- Gainerako sustapen pribatuetan ere UETak esleitzeko zozketa egingo da hurrengo artikulua aipatzen duen Udal Erregistroan sartuta dauden eskatzaileen artean, betiere Ordenantza honetan eta dagozkion oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen badituzte. Baldintzok behar hainbateko aurrerapenez argitaratuko dira, eta prozedura horretan guztian publizitatearen, gardentasunaren, lehia librearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuko dituzte. Zozketa hori egiteko, edonola ere, deialdi publiko bat egin beharko da eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean oinarriekin batera argitaratu, fede-emaile publiko baten aurrean.

4.- Udala ez beste sustatzaile publiko batzuk izanez gero, haien ezarriko dute esleipenerako prozedura zehatza zein izango den, betiere publizitate eta gardentasunaren, lehia librearen eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betez.

5.- UETak esleitzeko egiten diren zozketen oinarrietan kupo batzuk finkatu ahal izango dira, etxebizitzaren kopuru jakin bat premia bereziak edo etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak dituen gizarte-talde jakin baten barruan aurkitzen diren pertsonentzat izan daitezkeen. Halaber, kasu horietan zilegi izango da etxebizitzaren esleipen-prozedura baremo-sistema bidez egitea. Horretarako deialdietan zehaztuko diren zirkunstantziak baloratu eta puntuatuko dira.

6.- Salbuespen gisa, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek proposaturik, sustapen bakoitzaren zozketen deialdian etxebizitzaren kopuru jakin bat zozketa horretatik salbu uztea erabaki ahal izango da, Udalak gizarte-premia batzuei erantzun ahal izateko, babespeko alokairuaren bidez edo prekarioko lagapenaren bidez, hori guztia bizileku berri baterako eskubideari kalterik egin gabe; eta beraz, helburu horretarako xedatutako etxebizitzak ez dira zozketa-gai izango.

7.- UET baten onuradunaren bizikidetzaren unitatea familia ugariaren legezko tamainara iristen bada, sustapen berri bakoitzean kolektibo horrentzat gordetakoetatik erregimen bereko beste baten ordean trukatu ahal izango du bere etxebizitza, bai jabetzan, bai azalera-jabetzan eta bai alokairuan ere. Jabetza edo azalera-jabetza izanez gero, UET berriaren prezioaren eta aurrekoaren prezioaren arteko aldea ordaindu beharko du eskuratzailerik, Ordenantza honen 11. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera eguneraturik. Beren etxebizitzak trukatu nahi dituzten familia ugariak kolektibo horrentzat gordetako etxebizitzak baino gehiago izanez gero, horien zozketa egingo da.

4.- BETERRI KOSTAKO INDUSTRIALDEA SA SOZETATE PUBLIKOAREKIN HIRIGINTZA HITZARMENA (OR IRITA)

2015eko martxoaren 4ko ebazpen baten bidez alkateak erabaki zuen jendaurrean jartzea Berri-Kostako Industrialdea SA sozietate publikoaren eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko hirigintza-hitzarmena.

Hitzarmenak plan orokorreko 17-2 arean –OR IRITA– zuen eragina, eta Berri-Kostako Industrialdea sozietateak sustatu zuen. Iritako enpresa-parkearen bat-bateko bideraezintasunean oinarritu zuten. Honakoak dira haren funtsezko proposamenak:

- 17-2 areako –OR IRITA– hirigintzako antolamendua eta kalifikazioa aldatzea, etxebizitzak eraiki ahal izateko.
- Iritan aurreikusi zen ekimen publikoko enpresa-parkea Zarauzko beste gune batean sustatzea.

- Bi aldeek 2008an sinatu zuten hitzarmenarekin lotuta zeuden konpromiso eta obligazioak arautzea.

Hitzarmen-proposamenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Jendaurreko epean gaiari buruzko idatzi bakarra aurkeztu zen (Zarauzko Arkamurka Natura Elkartea).

2015eko martxoaren 6an egindako administrazio-kontseilu batean Beterri Kostako Industrialdeak erabaki zuen Udalari eskatzea hirigintza-hitzarmeneko espedientea geldirik lagatzea behin-behinean, harik eta Irita areako lehengo jabeen enpresa-parkea eraikitzeke desjabetutako lurak errekuuperatzeko aukera eskaintzeko itzulketa-eskubideen espedientea izapidetu eta amaitu arte. Alkatetzaren 2015eko azaroaren 3ko ebazpenaren bidez (1503 zk.), Udalak lurak itzultzeko eskubidearen iraungipena adierazi zuen eta amaiera eman zion espedienteari.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmen-proposamena eta espedientea jendaurrean egon zirenean Arkamurka Natura Elkartek aurkeztu zuen idatziari buruzko txostenak egin ditu.

Hitzarmena Hirigintzako informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatza osatzen duten 21 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Erantzuna ematea Zarauzko Arkamurka Natura Elkartean idatziari, Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuaren apirilaren 22ko 0313/2015 txostenean aditzera eman zenaren arabera.

Bigarrena.- Onartzea Beterri Kostako Industrialdea SA sozietate publikoaren eta Zarauzko Udalaren artean sinatu beharreko hirigintza-hitzarmena (17-2 areako – OR IRITA – hirigintza antolamendua aldatzea eta ekimen publikoko enpresa-parkea beste toki batean garatzea).

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko martxoaren 10ean argitaratutako testua da onartutako hitzarmena.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea Zarauzko Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.

5.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

a) Azaroaren 25^a, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Jarraian, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira udal talde guztiek adostutako adierazpen instituzionala irakurri du **batzarburu** jaunak. Honela dio:

**AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO
EGUNA"**

Azaroaren 25a "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna" da, halaxe izendatu baitzuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Egun hori dela-eta, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi diegu emakumeen aurkako indarkeria-adierazpenei (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...) eta sexismo-mota guztiei, baita sotil eta normalizatuenei ere: esate baterako, sexuen arabera rol estereotipatuak jartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikustezin izatea. Berretsi nahi dugu, baita ere, egiturazko arazo baten aurrean gaudela. Kontuan hartuta oinarrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza dagoela, ezinbestekoa da gaiari berdintasun-politikatik eustea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Gizarte-egitura matxistan oinarritzen da emakumeen aurkako indarkeria. Gizarteak aukera gutxiago eskaintzen dizkie emakumezkoen gizonezkoen baino, eta pertsonen askatasuna mugatu egiten du, jaiotzez duten sexuaren arabera. Rol matxistak identifikatzen saiatu behar dugu (baita sotilenak ere), errotik mozteko, horietan oinarritzen delako sexuen arteko desberdintasuna. Desberdintasunaren adierazpide larrienak emakumeenganako tratu txarrak eta hilketak dira. Gure nahia da jarrera matxista horiek gainditzea, berez desberdinak izanda ere eskubideetan denok berdinak izango diren pertsona askeen gizarte batean bizi ahal izateko, pertsonen sexua kontuan izan gabe.

Gizonei ere dei egiten diegu. Gizonen inplikazioa ezinbestekoa da berdintasunaren aldeko lanean eta rol matxisten eta jokaera bortitzen salaketan. Gizonek eta emakumeek elkarrekin lan eginda bakarrik lortuko dugu indarkeria sexista amaitzea.

Erakunde demokratikoek lehentasunezko helburu bat izan behar dute: indarkeria matxista amaitzea. Hori lortzeko urratsak eman behar ditugu, pixkanaka-pixkanaka sexuen arteko berdintasuna lotzeko. Argi utzi behar dugu, baita, emakumeen aurkako indarkeria ez dela etxe barruko edo arlo pribatuko arazo bat, eta horrek bere arrastoa utzi behar duela hizkuntzaren erabileran ere. Beraz, Udal honek "indarkeria matxista" terminoa erabiliko du, emakumeen diskriminazio eta desberdintasun egoerek sortutako tratu txarren kasuetan; eta "indarkeria sexista" terminoa, berriz, sexuaren ondoriozko diskriminazio zabalagoaz ari garenean.

Zarauzko Udalak berresten du indarkeria matxista gizartearen egiturazko arazoa dela. Horrek esan nahi du erakundearen papera oinarritzkoa dela arazo horretan. Erakundeok geure gain hartu behar dugu berdintasuna sustatuko duen gizartearen eraikuntzan daukagun ardura sozial eta politikoa. Hasteko, gure aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak berrikusi behar ditugu, bai maila pertsonalean bai kolektiboan.

Horiek horrela:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskumenen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Konpromisoa hartzen dugu politika aktiboak garatu eta indarkeria sexista bere adierazpide guztietan ezabatzeko.
- Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du Berdintasun Departamentua baliabide tekniko zein ekonomiko hornitzeaz gain, hura egonkortu eta indartzeko, 2016 urteko aurrekontuak zehazten ari diren une honetan.
- Tratu txarren biktimak animatzen ditugu euren erasotzaileak salatzeri eta Berdintasun Departamentura etortzera, aholkularitza eta laguntza jasotzeko.
- Zarauzko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die konpromisoa har dezatela, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitzeko, berdintasun zuzendaritzak indartzeko, epaitegietako genero-unitateak doitzeko eta legedia berrikusteko.
- Zarauzko Udalak borroka feministarekin daukan konpromisoa berresten du, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko eta burujabea eraikitze bide eta tresna gisa.
- Eta herritarrek gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzatela urteko egun guztietan, eta parte har dezatela azaroaren 25a dela-eta Berdintasun Departamentuak eta feministen taldeek antolatutako ekitaldietan.

b) Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna

Era berean, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta udal talde guztiek aurkeztu duten adierazpen instituzionala irakurri du **batzarburu** jaunak. Hona hemen testua:

2015eko ABENDUAK 3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2015eko abenduan, Euskararen Egunaren harira, **Zarauzko Udalak** honakoa nabarmendu nahi du,

Zarauzko udala Udaleri euskalduna da. Izan ere, herritar euskaldunak %70a direnez, euskararen arnagune ere bada Zarautz.

Azken hogeita bost urtean Zarauzko biztanleria modu nabarmenean hazi den arren udaleri euskaldun izaten jarraitzen du. Kontuan hartzekoa da kanpotik etorritako biztanle gehienak -%70 baino gehiago- Gipuzkoatik bertatik etorri direla, herriko ikastetxeek D ereduaren aldeko apostu nagusia egin zutelara, eta

neurri batean herri turistikoa izan arren, zarauztarrok gure izaerari eutsi nahi izan diogula. Beraz, eragile eta herritar askoren ahalegina eskertu beharrean gaude.

Gaur egun, beraz, euskarak badu presentzia Zarautzen, baditu hiztunak, eta baita euskaldun alfabetatu ugari ere. Urratu dugun bideari esker, euskarak datozen belaunaldietarako biziraupena ziurtatua duela esan genezake, batez ere belaunaldi gazteenak %90ean euskaldunak direlako.

Baina bizi-indarririk ba al du euskarak gure herrian? Benetan euskaraz bizi al gara zarauztarrak? Harro sentitzen al gara euskaldun izateaz? Gizarte eleanitzetarantz goazen garai honetan ematen al diogu gure hizkuntzari benetan duen garrantzia? Azken kale erabileraren neurketak (2011) dio zarauztarrok %50ean erabiltzen dugula euskara. Nahikoa al da?

Gaur egun inork ez du ukatzen euskara gure gizartearen bere-berezko elementua dela, euskaraz bizitzeko eskubidea dugula eta, geurea dela euskara biziberritzeko ardura eta betebeharra.

Euskara gure herriaren ezaugarri izan da eta izaten jarraituko du, are gehiago, gure gizartea elkarbizitzatik eraikitzeke hezurdura izan daiteke. Dakitenek erabiliz, ez dakitenek ikasiz, kanpotik datozenak hizkuntzara hurbilduz... elkarrenganako errespetua sustatuz. Euskaldun mota berriak dauzkagu, eskolan euskaldundutakoak, lehen hizkuntza gaztelera dutenak... guztiak harro sentitzea nahi dugu.

Zarautzek, beste arnaguneek bezala, euskaldun izateari eutsi badio, eragile askoren ahaleginari eta hiztunen hautuari esker izan da. Aurten, bereziki, euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi dugu, euskara ikastearekin, udalerrri euskaldunek gure hizkuntzari eusteko dagokien alea jarri dutelako.

Udal ordezkariok ere gure alea jarri nahi dugu. Horregatik, Zarauzko Udalak honakoa adierazten du:

1. Euskararen aldeko politikak bultzatuko ditugu, elkarbizitzan oinarrituta. Aintzat hartzekoa eta aitortzekoa baita hiztunek, euskaldun berriek eta herri eragile zein erakundeek, guzti-guztiek egindako lana.
2. Euskaldun berrien ahalegina aitortzeaz gain, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko eta horretarako bitartekoak jartzeko eta erraztasunak emateko konpromisoa hartzen dugu.
3. Udal ordezkari garen partetik, eta gure jarduna eredugarri izan daitekela jakinik, gure eguneroko lanean euskara izango da ohiko hizkuntza.
4. Era berean, Udal barneko zein kanpoko jardueratan euskaraz arituko gara, eta elebitan jardun behar dugunean euskarari lehentasuna emango diogu.

6.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) Irabazi Zarautz taldearen mozioa: HIESaren aurkako Nazioarteko Eguna

Ondoren, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

VIH/HIESAREN AURKAKO BORROKAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ZIOEN AZALPENA

Euskadin urtero 150en bat lagunek harrapatzen du birusa. Euskadin, VIH kasu berrien diagnostikoan, lau urte jarraian beherantz joan ondoren, 2014an gaixotasunak berriz ere egin du gora, eta 152 kasu berri egon dira, horietako 40 Gipuzkoan, hau da, 2013an baino %6,2 gehiago, orduan 143 kasu berri detektatu baitziren. Diagnostiko berrietatik %46,7 berandu antzemandakoak dira, eta horrek zaildu egiten du protokolo sanitarioa martxan jartzea, eta baita pertsona horren sendaketa ere. Birusa harrapatutako askok eta askok ez dakite birusa harrapatu dutenik, eta horrek areagotu egiten du hirugarrengoak kutsatzeko arriskua; ezjakintasun horrek eragiten ditu, hain zuzen, gaitzaren transmisio berrien %70a baino gehiago.

Osasun publikoak lehen mailako arazo handi bat du, eta hala ere, ikusten dugu murriztu egin dutela Hiesari buruzko Plan Nazionalaren aurrekontua; inplikatur dauden erakundeek 2011n zituzten 4,5 milioietatik 2015eko 1,7 milioietara pasatu dira. Estatu mailan egon den murrizketa handi horrek, nahitaez, VIH birusarekin bizi diren pertsonak artatzeko zerbitzuen desagerpena ekarriko du, eta baita ere, Hiesari buruzko Plan Nazionalaren babesean, prebentziorako estatu, autonomia eta herri mailan zeuden zerbitzu eta kanpaien desagerpena ere.

Prebentzioan egingo diren murrizketei gehitu egin behar zaie VIH infekzioaren kontrolean dauden gabeziak; eta kontrola ezinbesteko estrategia da pandemia hori geldiarazteko eta VIH / Hiesik gabeko belaunaldi bat lortzeko. Erakundeak "lasaitu egin dira" arazo honen aurrean, eta beharrezkoa da berriz ere kontzientziazio eta sexu-hezkuntzako programak egitea, gizarteak gogora dezan nahitaezkoa dela sexu segurua egitea, hartara, IHESik edo sexu bidezko beste gaixotasun batzuk ez harrapatzeko.

Eta horren harrira, esan behar da tratamendua beti izango dela prebentzioa eta kontrola baino garestiagoa, eta ez bakarrik ikuspegi ekonomikotik, baita ere, osasun publikoari eta bizitza kalitateari dagokionez. Bukatzeko, azken urte hauetan egon diren murrizketek eragina izan dute ikerketan, eta horrek urrutiratu egiten da behin betiko irtenbidea bilatzeko aukera.

Adierazitakoagatik, bada, Zarauzko Udalbatzarrak honako ERABAKIAK hartzen ditu bere gain:

1. Udalak, OSAKIDETZArekin batera, HIESA prebenitzeko informazio-kanpaina bat egingo du, preserbatiboaren erabilera bultzatzeko eta herritarrek kontzientziarazteko beharrezkoa dela hiesa detektatzeko froga egitea. Izan ere, VIH garaiz diagnostikatzeak bermatu egiten du bizitza kalitate hobea, eta merkatu egiten ditu osasun mailako kostuak. Kanpaina hori bereziki zuzenduko zaie gazteei, eta arriskurik handiena duten herritarrei: gizonezkoekin sexua izaten

gizonezkoei (HSH), eta baita birusa errazen hartu dezaketen pertsoneri ere, hau da, prostituzioan ibiltzen diren gizon eta emakumeei.

2. Mozio honen berri emango zaio OSAKIDETZARI, eta bereziki, Zarauzko Osasun Zentroari.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

b) EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Irabazi Zarautz taldeen mozioa: DAESH-en erasoen aurka

2015 O 001 0022 espedientea

Hurrena, EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta IRABAZI ZARAUTZ taldeek aurkeztutako proposamena irakurri du **alkate** jaunak. Hona hemen testua:

DAEX-en erasoen aurka, elkarbizitza bultzatu

Azaroaren 13an Paris eta inguruetan egindako ekintzetan ehun eta hogeitik gora hildako eta hirurehun eta hirurogeitik gora zauritu izan ziren. Ekintza hau DAEX, ESTATU ISLAMIARRA delako erakundeak hartu du bere gain. Ekintza hau Europako bihotzean izan bada ere, ezer gutxi ezberdintzen da maiatzetik hona Karachin, Qatifen, Kuwaiten, Soussen, Kairon, Suruçen, Baghdaden, Ankaran, Sinaiko basamortuan edota Beiruten izan diren besteengandik. Zerrenda honi iragan ostiralean Bamakon gertatutakoa ere gehitu zaio. Guztiek helburu bera dute, itxura batean: herritarren aurkako ekintzekin izua zabaltu eta bertako gobernu edota mugimendu politiko eta sozialek DAEXen aurkako borrokan modu batera edo bestera eragitea. Hau guztia, noski, gerra giro gero eta hedatuago batean.

Azkenaldiko gertakari hauen azalean dagoen itsukeria nabaria den arren, arazoaren sakoneko jatorriaz hausnartzea ere derrigorrezkoa da: Lehen Mundu Gerraren eta Otomandar inperioaren erorketaren ondoriozko interesen araberrako zatiketa eta itun inperialistak, tartean Sykes-Picot ituna; arabiar nazionalismoen porrot politiko eta militar ezberdinak; monarkia absolutisten sendotzea; Irango monarkia pertsiarren erorketa, iraultza eta kontrairaultzarekin batera; Pertsiar golokoko bi gerrateak; Siriako azken gerrate zibila edota arabiar eta israeldarren arteko gatazka luzea. Hauetako gehien bultzada, ordea, bertako herritarren borondatez baino Mendebaldeko potentzia ezberdinen interes ekonomiko edota geostrategikoen ondorioz gertatu dira. Honek guztiak, ondorio moduan eta arestian esan bezala, shii eta sunien arteko gatazka konponezinak eta Mendebaldeko estatuen aurkako jarrera aktibo eta bortitzak eragin ditu.

Egoera gatazkatsu honi, azken urteetan, DAEX izeneko *de facto*zko estatuaren sorrera gehitu behar zaio. Estatu honek, berezko finantziazioa baldin badu ere, ukalezina eta erabat salagarria ere bada duen finantziazioaren zatirik handienak jatorri ezagunetik lortuak dela: petrolio upelen salmenta itxuragabea, arma pisutsu eta arinen trafikoa...

Gatazka guztien moduan pertsonengan ere hainbat ondorio izaten ari da Ekialde Hurbileko eremu ezberdinetan. Gatazkaren krudelkeriak eraginda, ondorio oso latzak gainera. Ondorio hauetako latzenak, salbuespenak salbuespen, norbere herrietatik kanpora joatera bultzatuak direnak pairatzen ari dira. Azken hilabeteetan Europako bihotzean, Greziako irletan gertatutakoak hautsak harrotu ondoren, gertatzen ari den giza krisi larriaren bat da gatazka eremuetatik ihesi datozen errefuxiatuak pairatzen ari direna. Honen aurrean ere Europako hainbat estaturen epelkeria eta giza trafikoak eragiten dituen irabazien kontura aberasten ari diren mafien jarduera, biak ala biak, erabat salagarriak dira. Bataren utzikeriak, gainera, bestearen jarduera lasaia ahalbidetzen du.

Egoera honek guztiak, inondik ere, biktima berbera du: herritarra. Izan Parisen, Beiruten edota Karachin bizitzaren baldintzarik gogorrenak edota heriotza bera herritarrek pairatu behar izaten dituzte.

Hau guztia kontuan hartuta, Zarauzko Udalak, honakoa adierazi nahi du:

1. DAEX-ek eragindako biktima guztiei gure elkartasuna adierazi nahi diegu.
2. Behin betiko konponbide iraunkorra bilatzeko, bertako baldintza politiko, ekonomiko eta sozial duinak berreraikiko dituen nazioarteko ituna aldarrikatzen dugu. Honenbestez, inplikaturako nazioarteko agenteei bide horretan sakonduko duen akordio politiko eta diplomatikoetan sakontzeko eskatzen diogu, DAEXen porrot militarra eragiteaz gain.
3. Honekin batera, Ekialde Hurbileko jardun politikoaren armagabetzea gertatzeko beharrezko pausoak eman daitezken eskatzen dugu, arma trafikoan diru etekinak aurkitzeari utzi eta merkatu beltzeko arma trafikoa bultzatu beharrean horren aurka ere eginez.
4. Afrika iparraldetik Asia hegoalderaino azken urteetan gertatzen ari diren era ezberdinetako esku-hartzeak utzi eta giza eskubideetan, bertako demokrazietan eta herri bakoitzaren burujabetzan sakontzeko baldintzak sor daitezken eskatzen dugu.
5. Zarautzen, hainbat gatazkek eragindako errefuxiatuak hartzeko borondatea erakustearekin batera, arestian aipaturako eskaera horiek gauzatzeko lan egingo dugu. Horretarako, Udalak dituen eskumenen baitan, udal departamentu ezberdinetan martxan dauden edota jarri daitezken programak abiatuko ditugu.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribaturako mozioa onartzea.

c) EH Bildu taldearen mozioa: Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmena (TTIP) aplikatzearen kontrako udal aitortpena

Aztergai honetan, mozioaren aurkezle EH BILDU udal taldeak hala eskatuta, eta denon artean testu bat adoste aldera, mozioa mahai gainean utzi dute, hurrengo osoko bilkuran aztertzeko.

d) EH Bildu taldearen mozioa: Guardia Zibilaren kuartelak okupatzen duen espazioa libre uzteari buruz

Hurrena, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hona hemen mozioa:

MOZIOA

1.- Zarauzko Udalbatzak Estatuko Administrazio orokorrari eskatzen dio aurrera eramane dezala bere segurtasun-gorputz eta -indarren moldapena euren eskumen-eremu hertsira, Gernikako Autonomia Estatutuan eta egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera, eta baita Eusko Legebiltzarrak adostutako 111/2013 Legez besteko Proposamenarekin bat. Kontestu horretan, Zarauzko Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio jarrai dezala adierazten Guardia Zibilak Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrietan atzera-egiteari buruzko planifikazioa lantzeko beharra.

2.- Zarauzko Udalbatzak Espainiako Gobernuako Barne Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen die Segurtasun Batzordearen baitan lan egin dezatela, Estatuko segurtasun-gorputz eta -indarren atzera-egiterako irizpideak ezar ditzaten, egiazko segurtasun-beharrak eta Gernikako Autonomia Estatutuak emandako eskumenak aintzat harturik. Halaber, adostu dezatela atzera-egite horren ondorioz libre gera dadila gaur egun Guardia Zibilak Zarauzko Araba Kaleko 52 eta 54 zenbakietan okupatutako espazioa.

3.- Aurreko puntua betez, Zarauzko Udalbatzak aldarrikatu egiten du, Guardia Zibilak Zarautzen atzera-egitea gauzatu arren, Armen Esku-hartzerako Bulegoa mantentzen dadila, Zarauzko herritarrentzat eta ingurukoentzat utziezinezko zerbitzua izanik. Hori dela eta, Zarauzko Udalak bere borondatea adierazten du gainontzeko erakundeekin batera zerbitzu horrentzako balizko kokalekuak aztertzeko.

4.- Zarauzko Udalak erabaki honen berri emango die Eusko Legebiltzarrari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne Ministerioari eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Orokorrari.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoaz, transkribatutako mozioa onartzea.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzietan, eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.